BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO SAILA

416

EBAZPENA, 2012ko urtarrilaren 2koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 6 zenbakiko Epaitegiak bideratu duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (477/2011 prozedura laburtua) interesdun izan litezkeenak deitzen dituena.

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoak (477/2011 prozedura laburtua) Euskal Herriko Polizia Ikastegiko zuzendariaren 2011ko urriaren 4 eta 10eko ebazpenen kontra egiten du. Ebazpen horien bitartez Ertzaintzaren oinarrizko eskalako Agente eta Agente Lehena kategoriako karrerako funtzionarioentzako Bide Segurtasunean espezializatzeko ikastaroan sartzeko hautaketa prozeduran zenbait ertzain baztertuak izan ziren. Eta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, aipatutako prozeduran interesdun izan litezkeenei dei egiten zaie, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bederatzi eguneko epearen barruan ager daitezen prozeduran; eta hala, egoki baderitzote, euren legezko interesen alde egin ahal dezaten.

Arkauti, 2012ko urtarrilaren 2a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
ELENA MORENO ZALDIBAR.